

Teknika erabilgarriak talde lanerako

Entzute adimentsua (Escucha inteligente)

“Ea zer ematen didaten” baino gehiago “Ea zer ateratzen dudan eta zer elaboratzen dudan” bilatzen duen jarrera mentala da. Horretarako, ikasi daitezkeen hainbat gaien kategoriak hartzen dira kontuan eta kontuan hartzen da ere hainbat iturrietatik ikasi daitekeela, informazioen inguruan egin ditzakedan operazio desberdinak eta egoerak aportatzen dizkidan estimuluak.

Aurretiko hausnarketa (Reflexión previa)

Tratatuko dugun gaia erabaki ondoren, partaide bakoitzak gai horren inguruan pentsatzen ditu ideia batzuk eta idazten ditu. Gogoetarako puntuak zabaltzen dira horrela, ideien kalitatea handitzen da eta nabarmen areagotzen da parte hartzea.

Xuxurlaka (Cuchicheo)

Talde bateko partaideek proposatu den gaiari buruz komentatzen dute binaka denbora tarte labur batean (2 – 5 min)

Idea zaparrada (Tormenta de ideas)

Talde bateko partaideek bururatzen zaizkien ideia guztiak botatzen dituzte proposatutako gaiari buruz, baloratu eta eztabaidatu gabe; ateratzen ari diren ideiak balio dezakete beste ideia batzuen piztaile izateko.

Tripodea (El trípode)

Pertsona batek -lan baten ardura duena- beste bi edo hiruei eskatzen die esku tartean duen asuntoaren inguruan 20 minutuz pentsatzeko.

Orri librea (Hoja libre)

Ideien ekaitzaren bertsio indibiduala (edo binakakoa) da. Gai baten inguruan pentsatu behar da modu desordenatuan eta orri txuri batean idazten joaten gara, pentsamendu ordenatura joan baino lehen.

Sei kapelen teknika (Técnica de los seis sombreros)

Sei pentsamendu mota bereiztea eta proposatutako atazaren helburuen arabera seietako bat aukeratzea da. Hauek dira sei pentsamendu motak:

informatiboa (datuak, gertaerak eta informazioak lantzen ditu); intuitiboa (Inpresioak, intuizioak, balio-iritziak); kritikoa (akatsak, hutsuneak... seinatzen ditu); positiboa-garatzaila (abantailak, onurak, ideia baten eraginkortasuna); pentsamenduaren gestore (pentsamenduak antolatzen ditu, ideiak laburtu eta ordenatu).

Txosten txuria (Informe blanco)

Gai bati, ataza bati edo arazo bati ekiteko kontuan izan beharrezkoak diren oinarrizko datuak, gertakariak eta informazioak biltzen dira.

Txosten kritikoa (Informe crítico)

Objektu edo proiektu edo prozedura baten akatsak, inperfekzioak, hutsuneak erakutsi eta kritikatzeko da.

IxG ideia garapena (IxD idea desarrollo)

Denbora batez ideia batean gelditzean datza (ematen zaio balioa alde batera utzita), garatzeko, eraginkortzeko, distirarazteko edo eta dituen onurak bilatzeko.

Etzi (Pasado mañana)

Pentsatu behar da nola nahi dugun izatea zerbait etorkizunean eta gero bideragarritasun mailetan antolatu.

PO-a sartu (Introducción del PO)

Bileretan edo lan-elkarrizketetan PO hitza erabili daiteke ideia berri bat, edo osatugabea, edo zirikatzailea sartzeko. PO esatea zera esatea litzateke: “Kontsideratu une batez ideia hau edo begira ezazu beste ideia batera eramaten ote zaituen”.

Suposizioen berraztertzea (Revisión de supuestos)

Idea edo egoera baten inguruan mugiezinak kontsideratzen diren suposizioak egoten dira. Arretaz pentsatzea eta uste horiek aztertzea erabiltzen ari garen ikuspuntua aldatzera eraman gaitzake.

Atazen zerrenda eta segida (Listado y secuenciación de tareas)

Ataza konplexu bat ataza sinple eta zehatzetan banatu egiten da eta gero denboran ordenatzen dira.